



GEURIEN be BAI

»»» Bermeoko alkarteentzako laguntzak

Herriari euskeraz bizitzeko aukerea eta indarra emoteko, Bermeoko Udalak **Geurien be bai!** egitasmoa hasi eban 2004an.

Egitasmoaren helburu nagusia Bermeoko arlo sozio-ekonomikoan eta alkarteetan euskerearen erabilera bultzatzeko plana garatzea da.

Daborduko 26 alkarte eta 23 enpresa dabilz **Geurien be bai!** egitasmoan parte hartzen, eta Bermeoko Udalak laguntzea eskaini gura deutse euskerea bultzatzeko ahalegina egiten daben alkarte, talde edo txoko danei.

Udaleko Euskera Sailak eskaintza zabala eta iraunkorra dauka herriko alkarte, talde eta txokoentzat, euren jarduna erraztasun osoz euskeraz egin ahal izateko.

Euskera Sailak honeek laguntzak eskaintzen dauz:

- »»» Euskerazko materiala.
- »»» Publizitate testuak.
- »»» Dokumentu-ereduak.
- »»» Itzulpen eta zuzenketarako baliabideak.
- »»» Hartu-emonak erabiltzaileakaz.
- »»» Kanpaina berezietarako kartelak eta oharrak.
- »»» Euskerazko programa informatikoak ipintzeko laguntzak.
- »»» Aholkularitzea.

Geroz eta gehiago dira euskeraz aritzen diran alkarte, talde eta txokoak. Zuen ekintzak euskeraz egin ahal izateko edozein laguntza behar badozue, ez itxaron!

Laguntzak zain daukazuez!

»»» Bermeoko alkarteentzako laguntzak

GEURIEN
BE BAI



GEURIEN
be BAI

GEURIEN
be BAI

GEURIEN
BE BAI



Geurien
be BAI



Web gunea

Web-gunean daukazuen informazioa egokitzeko edo itzultzeko.

Materiala

Gabonetako loteria, maketautako kartelak, hiztegiak,... lortzeko.

Testuak egokitu eta zuzendu

Barne-dokumentuak, bazkideentzako gutunak, herritarrentzako kartelak... itzultzeko edo zuzentzeko.

Dokumentu ereduak

Sarri erabiltzen diran inprimakiak euskeraz izateko: estatutuak, orri-buruak, albaranak, fakturak, ordain-agiriak.

Eta horrezaz ganera...

Aholkularitza iraunkorra, alkartea euskalduntzeko eta euskerearen inguruan daukazuen edozein zalantza argitzeko.

Zer aurkeztu

Eskaera orria.
Eskaerari jagokon dokumentazioa.

Nork eskatu leike

Bermeoko alkarte, talde eta txoko guztiei zuzenduta dagoz laguntzak.

Non

Euskera Sailean

94 617 91 22

euskera@bermeo.org

Berh@z

94 617 91 91

berh@zbermeo.org



GEURIEN
be BAI

